

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

4080

AGINDUA, 2021eko uztailaren 5ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, sailburu beraren 2020ko urriaren 6ko Agindua hirugarrenez aldatzen duena. Horren bidez argitara eman ziren Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan jardungo duten epaimahaien eta batzorde-barematzaileen osaera (agindu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak deitzen dira, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere).

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bitartez (2020ko otsailaren 27ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdiak egin ziren, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere. Agindu horren 5 oinarriak ezartzen duenaren arabera, Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 6ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan jardungo duten epaimahaien eta batzorde-barematzaileen osaera argitara eman zen.

Batzorde-barematzaile batzuetako buruek parte hartzea eragozten duten gorabeheren ondorioz, zenbait aldaketa egin behar dira.

Horren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 6ko Aginduaren III. eranskina; horren bidez, argitara eman zen Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan jardungo duten epaimahaien eta batzorde-barematzaileen osaera (azken agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak deitzen dira, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko prozedurak ere). Hauek dira aldaketak:

– Sira Ayarza Elorriaga izango da Biologia eta Geologia eta Akuikultura prozesuak batzorde barematzaileko buru titularra, Miren Karmele Agirreazkuenaga Zigorragaren orde.

– María Juncal Mitxelena Izquierdo izango da Biologia eta Geologia eta Akuikultura prozesuak batzorde barematzaileko ordeko burua, Sira Ayarza Elorriagaren orde.

– María Angeles Bermeosolo Urrea izango da Merkataritza-antolaketa eta –kudeaketa, Laneko prestakuntza eta orientabidea eta Hezkuntza-orientabidea batzorde barematzaileko buru titularra, Jesús María Santiago Martínezen orde.

– Jesús María Santiago Martínez izango da Merkataritza-antolaketa eta –kudeaketa, Laneko prestakuntza eta orientabidea eta Hezkuntza-orientabidea batzorde barematzaileko ordezkoko burua, María Angeles Bermeosolo Urrearen ordezkoko burua.

– José Miguel Cuesta González izango da Analisi eta kimika industrialak, Osasun-prozesuak, Ostalaritza eta turismoa eta Eraikuntza zibilak eta etxegintza batzorde barematzaileko ordezkoko burua, Gaizka Gabantxo Zabalaren ordezkoko burua.

– Gaizka Gabantxo Zabala izango da Ibilgailuen mantentze-lanak, Estetika, Ile-apainketa eta Sukaldaritza eta gozogintza batzorde barematzaileko buru titularra, Lourdes Orueta Mendiaren ordezkoko burua.

– Pilar Tomás Vicente izango da Ibilgailuen mantentze-lanak, Estetika, Ile-apainketa eta Sukaldaritza eta gozogintza batzorde barematzaileko ordezkoko burua, Gonzalo Juan Larruzea Romáñen ordezkoko burua.

Bigarrena.– Agindu honetan azaltzen diren hautaketa-organoko kideek ez dute prozeduran parte hartuko, eta Langileak Kudeatzeko zuzendariari horrela jakinaraziko diote frogagirikin, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusten dituen gorabeheraren batean sartuta badaude, edo deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan kidego eta espezialitate berean sartzeko hautaprobetarako izangaiak prestatzen lanik egin izan badute. Hamar egun naturaleko epea izango da uko egitea edo abstenitzea eskatzeko agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Halaber, izangaiak hautaketa-organotako kideak errefusa ditzakete, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurrez ikusitako betekizunak ematen badira.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko aretoan bi hilabeteko epean, aipatutako egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 5a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.